

Gazteen III. BERRIA

Ikasgela sariketa

Azalpena: Azpeitiko Izarraizpe Ikastola publikoko DBH 4. mailako ikasleekin literatura kritikak landu ditugu Euskara eta Literatura arloan. Hasteko, *Amodioaren gazi-gozoek* liburuaren irakurketa ozena tarteko, tertulia dialogikoak egin ditugu, eta horrek, hausnarketarako zein eztabaidarako aukera asko ireki dizkigu. Jarduerari jarraipena emanez, kritikak lantzen aritu gara. Horretarako, beharrezko hizkuntza baliabideak landu ditugu eta baita kritiken adibideak irakurri eta egiturak aztertu ere. Azkenik, ikasle bakoitzak liburuari buruzko kritika osatu du eta Aitor Aranaren bisitaz gozatzeko aukera ere izan dute.

Amodioaren gazi-gozoek eleberriaren kritika



Aitor Aranak 2001ean argitaratutako liburua irakurri berri dut. Ibaizabal argitaletxearen lan honek zer esana piztu dit! Euskal literaturan murgiltzeko eleberri ezin hobea da. Izan ere, nork ez du gustuko iraganera eramaten gaituen istorio hau?

Jone gasteiztarra da, baina txikitatik, gurasoek erositako Berrota baserrian igarotzen ditu udak, Erratzun. Uda horietako batean, baserrian bertan, zaharkitutako eguneroko batekin topo egiten du. Bertan, Miren Urkiolaren gertaerak agertzen dira, eta ondorioz, Joneren altxorrik kuttunena bilakatuko da.

Mirenen aipamenei bidez, Euskal Herriko antzinako garaira hurbiltzen gara, irakurlea bertan sentiaraziz. Idazlearen lana arina bezain zirrargarria iruditu zait, lehenengo unetik lotura sortzen baitu. Nahiz eta fikziozko istorioa izan, iraganeko eta gaur egungo baliabide eta baldintzei buruz gogoeta egitera gonbidatzen zaitu, liburuarekiko interesa piztuz. Hala ere,

zenbait gertaera sinesgaitzak iruditu zaizkit. Horiek horrela, eta zenbait adituk diotenez, istorioa apur bat irrealia bihurtzen da, eta erabat ados nago.

Dena den, gorabehera guztiak kontuan izanik, ziur nago ni bezainbeste harrituko zaituela amaierak. Aitorren hitzek diote: “iraganari buruzko interesa dutenentzat aproposa”, baina nik edozeini gomendatuko nioke, oso irakurketa entretenigarria eta hunkigarria baita.

Jone Amenabar Larrañaga DBH 4C